

noaua



MOZORRO ETA KOLORE FESTA

Asteburu honetan ospatuko da Inauteri Jai, ikastetxeetan eta kalean / 22

ARGAZKIA: NOAUA



GASTIBELTZA

'Bizkarsoro' filmaren proiektioarekin abiatuko da NOAUA! Kulturaldia / 05



NOAUA

"Lehiakortasuna alde batera utziko dugu Xake Topaketetan" / 08



NOAUA

'Pauso Berriak' lankidetzaren hitzarmena berritu du Urbilek / 15



UDALA

Udal gobernu taldeak 2023/27 legealdiko plangintza aurkeztu du / 16

INAUTERIAK 2024

OTSAILAK 9-10 USURBIL
GAIA: FAUNA

OSTIRALA

19:00 kalejira
Kiroldegitik abiatuta
URDEREN ETORRERA.

Mozorrota eta etor
zaitez gurekin
Usurbilgo inauteriaz
goatzera!

LARUNBATA

11:30 Mozorro dantza
kalejira kiroldegitik abiatuta!

12:30 - 14:00 **JOALDUNAK**
kalean zehar

18:00 **BURRUNBAZALE**
txarangarekin kalejira.

22:30 **ITZAL erromeri**
taldearen emanaldia frontoian

"Zer nahi dugu Elkargunean gertatzea?"

Udarregi ondoko belardian eraikiko duten Elkargunearen egoitza diseinatzen hasi ziren larunbatean abiatu-riko parte hartze prozesuarekin. "Zer nahi dugu Elkargunean gertatzea?" galdera abiapuntu-tzat hartu zuten Elhuyarrek ikastolako jangelan dinami-zatu zuen lehen saioan. Kul-turgunea, Aztarrika, Ziortza, Udala eta Gaztelekua dira sustatzaileak. Datorren saioan beste esperientzia batzuk ezagutzera joango dira.



Elkargunea diseinatzeko otsailaren 3an Udarregi ikastolako jangelan egindako lehen parte hartze saioa.

Garbigune mugikorra, Usurbilgo kaxkoan

Otsailaren 8tik aurrera, garbi-gune mugikorra Usurbilgo kaxkoan izango da. Era hone-tan, etxeko hondakinen berre-rabilpena eta birziklatzea sus-tatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Otsailaren 15ean osteguna, garbigune mugikorra Agina-gara eramango dute.

Otsailaren 24an, 1956an jaiotakoekin kinto bazkaria

Otsailaren 24an larunbata, Sekañan elkartuko dira eguer-diko 14:00etan. Izena emate-ko telefono zenbaki hauetako batera deitu behar da:

- 687 706 363 (Mertxe).
- 695 780 696 (Blanca).

Kontuan izan otsailaren 20an amaituko dela izena emateko epea.

'Gazteon Eskutik' ekimenerako bonuak salgai

Martxoaren 29tik 31ra Ernai gazte antolakundeak Lezon antolatu duen 'Gazteon esku-tik loratuko da udaberria' ekimenerako hiru egunetara-ko bonuak salgai jarri dituzte Euskal Herriko hainbat txo-kotan; tartean, Usurbilen, Aitzagan hain zuzen, 35 euro-ren truke.

Sagastien neguko kimaketari buruzko ikastaroa

"Sagastien neguko kimaketa eta ongarriketa" saioa anto-latu du Alkartasuna baserri-tarren kooperatibak otsailaren 23rako. Arratsaldeko 15:30etik 18:30era batuko dira Potxoe-nean. Izena aurrez bideratu beharko da telefonoz (943 361 114) edo alkartasuna.eus web orrialdearen bidez.

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkarte
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbezo, Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzailleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



AINHOA AZPIROZ EIZMENDI

Sasiegunak

Arretaemanzidanalabak “gaur Kroketa eguna da” esateak. Kroketa eguna? Eta bai, hortxe dago agendan: urtarrilak 16, Kroketa eguna. Hori ere ba al dugu?

Data bitxi horri tiraka, urtarrilaren 16an Kroketa egunaz gain, Beatlesena, janari pikantea eta elurrarena ere ba omen dira. Ez dirudi oso serioa honek guztiak...

Bizipozak egin duen 2024. urteko egutegia etorri zait gogora. Hilabetez hilabete aldarrikapen egunak izendatu dituzte eta hilabete honetan, otsailean, hauek daude: Sortzetiko Kardiopatiaren Nazioarteko Eguna hilaren 14an, Haur Minbizidunen Nazioarteko Eguna hilaren 15ean, Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Eguna 21ean eta Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Eguna 29an.

Jakin-mina piztu dit gaiak, informatzen hasi naiz eta kategoria desberdinetako egunak daudela jabetu naiz: Nazioarteko Egunak, Munduko Eguna eta Eguna.

Nazioarteko Eguna Nazio Batuen Batzar Orokorak erabakitako egunak dira eta oso eginkizun zehatzak dituzte: lehenengoa Nazio Batuen Hitzarmenaren helburuak betetzen laguntzea, eta bigarrena jendea ohartaraztea kultura, gizarte eta politika arazoez. Egun batzuk gerta-



“Ez dira gauza bera Nazioarteko Eguna, Munduko Eguna eta Eguna”.

kari zehatzak oroitzeko aldarrikatzen dira eta beste batzuekin gai eta arazo jakin batzuei buruzko informazioa zabaltzea da asmoa. Nazioarteko Egunen artean daude Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna abenduaren 10ean, Emakumearen Nazioarteko

**"TXIKIKERIAK
ETA PISUZKO
ALDARRIKAPENAK
MAILA BEREAN?
ALDEA DAGO
BATETIK BESTERA,
BAINA JABETZEN
OTE GARA?"**

Eguna martxoaren 8an, Liburuaren Nazioarteko Eguna apirilaren 23an eta abar. Bueno, ondo arrazoitutako egunak.

Besteak, nazioartekoak ez diren egunak, munduan zehar dauden beste erakunde batzuk izendatzen dituzte eta horiei Munduko Eguna deitzen zaie. Horien artean daude Esnearen Munduko Eguna ekainaren 1ean, Txotxongiloen Munduko Eguna martxoaren 21ean, Hezegunen Munduko Eguna otsailaren 2an edota Postaren Munduko Eguna urriaren 9an. Bueno, ez dirudite hain pisuzko egunak.

Eta azkenik, egunak daude, Nazioarteko eta Munduko hitzak aurretik ez dituztenak: Lurraren Eguna apirilaren 22an, Interneten eguna maiatzaren 17an; Ozeanoen Eguna ekainaren 8an; Proba Nuklearren Kontrako Eguna abuztuaren 29an... Bueno, edonor sortzeko moduko egunak.

Aldea dago batetik bestera, baina jabetzen ote gara? Konturatzen ote gara ez dela gauza bera Janari pikanteen Eguna eta HIESaren Aurkako Nazioarteko Eguna? Txikikeriak eta pisuzko aldarrikapenak maila berean jartzeko joera zabaltzen ari ote den da nire kezka. Eta hori zeren sintoma den galdetzen diot neure buruari.

Treba Gurasoak egitasmoko lehen saioa

Haurren eta nerabeen bizi-kalitatea eta aukerak hobetzeko gurasoak hezkuntza-gaitasunetan trebatzea xede duen Treba Gurasoak Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritzaren prestakuntza-ekimena Usurbila helduko da laister, Gaztelekuaren, Hitz Aho Udarregi ikastolako guraso elkartearen, Udalaren eta Aldundiaren eskutik. Lehenengo saioa otsailaren 22rako iragarri dute 17:30ean Potxoenean. “Haur eta nerabeen emozioen bidelagun: nola zaindu seme-alaben emozioak”, hortxe iragarri dute saioa, Donna Apellanizek bideratuko duena. Hitzordurako gonbidapenak usurbil-kultura.eus plataforman eskura ditzakezue. Plaza-kopurua mugatua izango dela ohartarazi dute.

2. Xake Topaketa Sutegi udal liburutegian

Iazko estreinako edizio arrakastatsuen ondoren, bi saioko Xake Topaketaren bigarren edizioa antolatu du Sutegi udal liburutegiak:

Otsailak 16 ostirala

17:00 LH 1, 2 eta 3. mailakoei zuzendurikoa.

Otsailak 23 ostirala

17:00 LH 4tik gorakoentzat. Oharra: taldea oso handia baldin bada, martxoaren 1ean beste saio bat egingo dute.

Atxi
PATRIKAZI
JATEXEA
• bazkariak EGUNERO
• afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 • © 688 690 361

txirriStra
TABERNA
• PLATER KONBINATUAK
• BOKATAK • PINTXOAK
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO



'Bizkarsoro' fikziozko herria da, baina filmaren egileen esanetan, "Euskal Herriko edozein herri izan daiteke".

'Bizkarsoro' filmaren proiektzioarekin hasiko da NOAUA! Kulturaldia

Euskararen aurkako jazarpenaren eta euskaldunen bizitzeko gogoaren historia kontatzen du Josu Martinezek zuzendutako filmak. 1914tik 1982ra bitartean gertatzen diren bost istoriok osatzen dute 'Bizkarsoro'.

Kulturaldia 2024

Otsailak 16, ostirala

- 19:00 Josu Martinezek zuzenduriko Bizkarsoro filmaren proiektzioa eta solasaldia Sutegin.
- Sarrerak: aldeztatik salgai 6 eurotan usurbilkultura.eus webgunean. Bazkideek 4 eurotan eskuratu ahal izango dute sarrera bat NOAUA!ko egoitzan. Nori zuzendua: helduei.

Otsailak 17, larunbata

- 22:30 Tapia eta Leturiaren kontzertua Aginagako Eliza Zaharra Elkargunean.
- Sarrerak: aldeztatik salgai 12 eurotan usurbilkultura.eus webgunean. Bazkideek 10 eurotan eskuratu ahal izango dute sarrera bat NOAUA!ko egoitzan.

- Antolatzaileak: NOAUA!, Aginagako Eliza Zaharra Elkargunea.

Otsailak 18, igandea

- 18:00 Ztandap. Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai umoregileen "Binakako baka-rrizketa" Sutegin.
- Sarrerak: aldeztatik salgai 6 eurotan usurbilkultura.eus webgunean. Bazkideek 4 eurotan eskuratu ahal izango dute sarrera bat NOAUA!ko egoitzan.

Otsailak 24, larunbata

- 19:00 "Toto" antzezlanaren Sutegin.
- Zehaztasunak: "TOTO-Mafalda Bellidoren "Chucho" antzezlanean oinarritua. Agurtzane Intxaurregak zuzendua eta Kepa Erraztik itzulia. Ak-

tore lanetan Miren Gojenola eta Asier Hernandez.

- Sarrerak: aldeztatik salgai 10 eurotan usurbilkultura.eus plataforman. Bazkideek 8 eurotan eskuratu ahal izango dute sarrera bat NOAUA!ko egoitzan.

Otsailak 25, igandea

- 18:00 "Etxe bat". Poesia errezitaldi musikatua Sutegin, Yolanda Arrieta Malaxetxebarria eta Peru Galbete Labiano-ren eskutik.

**SARRERAK
USURBILKULTURA.
EUS WEB ORRIAN
ESKURA DAITEZKE**

- Sarrerak: aldeztatik salgai 10 eurotan usurbilkultura.eus plataforman. Bazkideek 8 eurotan eskuratu ahal izango dute sarrera bat NOAUA!ko egoitzan. Antolatzailea: NOAUA! Kultur Elkarte.

Sarrerak eskuragarri

2024ko Kulturaldi aurreratu honetarako sarrerak salgai dituzue usurbilkultura.eus plataforman, baita NOAUA! Kultur Elkartearen egoitzan. NOAUA!ko bazkide direnek merkeago eskura ditzakete baina horretarako gure egoitzara etorri behar da (bazkide bakoitzeko, sarrera bana).

Kulturaldia otsailean ospatuko da aurrerantzean

Azaroan egon ohi den ekitaldi eskaintza zabala aintzaketat hartuta, NOAUA! Kultur Elkarteak estreinakoz herri dinamikaren ikuspuntutik nabarmen lasaiagoa den otsailera aurrerantzean erabaki du datorren Kulturaldia. Beraz, gauzak ondo, aurrerantzean udaberriaren atarian ospatuko da NOAUA Kulturaldia.

Otsaileko azken hamabostaldian

Data aldatu arren, Kulturaldiaren eskaintza antzekoa izango da. Arte diziplina askotariko euskarazko sorkuntza lanez gozatzeko aukera izango dugu. Aurtengoa otsailaren 16an hasi eta 25era arte luzatuko da.



Idoia Torregarai eta Mirari Martiarena, Zumetaren muralaren aurrean. ION MARKEL SAEZ DE URABAIN.

"Batzuetan barre egin nahi eta lotsaz ere ikusten ditugu zenbait"

IDOIA TORREGARAI UEU-KO KOMUNIKAZIO-ARDURADUNA ETA UMORISTA

Idoia Torregarai usurbildarrak eta Mirari Martiarena oiartzuarrak ikuskizun berria plazaratuko dute NOAUA! Kulturaldiaren baitan. Otsailaren 18an igandea, arratsaldeko 18:00tan Sutegin.

NOAUA! 'Ztandap' lana eskainiko duzue Usurbilen lehen aldiz Mirarik eta biok. 'Luze edo Motz' bakarriketa saioaren formatu bera izango du lan honen ere?

Bai, funtzionatzen duen formatua da. Bion artean lotura hori sortu dugu eta bakarriketak elkarrekin egitea gustuko dugu. Ahizpatasuna hori ere bada. Batzuetan gogorra da oholtzara bakarrik igotzea, eta umoreaz ari garenean, are eta gehiago. Batzuetan funtzionatzen du, eta besteetan ez, eta indarra behar da egoera horri aurre egiteko ere. 6 urte daramatzagu formatu honetan elkarrekin lanean, binakako bakarriketan, eta

oso eroso zein indartsu sentitzen gara. Batzuetan indarra behar dugunean edo falta zaigunean, oholtzan elkar aurkitzen dugu eta oso gustuko formatua da guretzat. Herri eta elkargune txikiak moldatzeko aukera ematen digun formatua da. Izan ere, teknikoki ez du lanik edo materialik eskatzen.

Emakumea zenuten gai nagusi 'Luze edo Motz'-en kasuan. Oraingoan ere gai horrekin jarraituko duzue?

Bai, gure eguneroko kontuak ekarriko ditugu Sutegiko oholtzara. Bi emakume garenaz, beti uzten du arrastoa eta horretatik eraikitzen dugu saioa,

hain zuzen ere. Bikotea ez edukitzearen "drama" jarriko dugu mahai gainean, señora izatea, elkarbizitza, sexua, guraso izatea... gure egunerokotasuneko kontuak dira jendaurrera eraman nahi ditugunak, umorea eta generoaren filtoitik pasatuta. 6 urteko bide honetan, euskara eta generoa hartu genituen gaitzat, eta gerora, 'Luze edo Motz'-en

"PLAZARIK ZAILENA BETI NORBERAREN HERRIKOA IZATEN DA"

generoaz aritu gara osorik. Gai honi buruz hitz egin nahi dugu eta beharra ere sentitzen dugu horretarako. Oso ondo pasatzen dugu. Gure bizi esperientzietatik abiatuta egiten dugunez, pribatua publiko egiten dugu. Publikoko emakumeak gurekin identifikatzen dira eta hor sortzen den hori oso berezia izaten da. Gizonezkoek ere ondo pasatzen dute konturatu ez diren gairen bat ateratzen dugunean eta alboko emakumeak barrez ikustean. Batzuetan barre egin nahi eta lotsaz ere ikusten ditugu zenbait, baina guk beti esaten dugu garrantzitsuena barre lasai egitea dela eta bakarriketak lasaitasunez eta konplexurik gabe gozatzea.

Euskal Herriko txoko batzuetan izan zarete Ztandapekin. Nolako harrera izan du?

Bakarriketa bat estreinatzean denbora behar izaten du forma erabat hartu eta erosotasunetik egina izateko. Guk beti lan guztiak Altzon hasten ditugu. Oso harrera ona izan genuen bertan, baina behin plaza batzuk eginda erosoago sentitzen hasten gara eta inprobisazioari ere tarte egiten diogu. Saio bakoitza ezberdina da, hala ere. Lekua eta jendearen nolokotasunaren arabera asko aldatzen da egoera, eta gu geu ere modu pertsonalago batean nola gauden ere kontuan hartu behar da. Testua behin gorpuztuta eta erosotasun hori aurkituta, gozagari bihurtzen zaigu. Hala ere, esan beharra dago plaza-rik zailena beti norberaren herria izaten dela. Urduritasun gehiagorekin aritzen gara eta azterketa zailagoa izaten da gaintzeko.

Momenturen batean bi lanekin batera aritu zarete lanean?

Bai, eta oso dibertigarria da, gainera. 'Luze edo Motz' oso erraz ateratzen zaigu. Erronka ederra da bi ikuskizun batera kudeatzen asmatzea eta batetik bestera jauzi egiten ikas-

→ tea. 'Luze edo Motzek' poz handiak eman dizkigu eta 200 plaza inguru egiteko aukera eskaini digu. Urtearekin batera amaitu nahi genuen 'Luze edo Motz' eta 2024an sartzean 'Ztandap'-ekin hasi. Bi testuekin batera lanean aritzeak badu xarma hori ere.

'Luze edo Motz' bezainbesteko ibilbide oparora aurreikusi duzue Ztandapentzat?

Halaxe nahi genuke. Pare bat urterako prestatu dugu ikuskizun hau eta berarekin Euskal Herri osoa bisitatu nahi genuke. 'Luze edo Motz' ikuskizunarekin egon ginen herriei aipatzen ari gara ikuskizun berria prestatu dugula; ea aukerak sortzen zaizkigun denetara edo ia denetara itzultzeko eta leku berriak ezagutzeko. Zuberoara joatea falta zaigu: Zuberoa da Euskal Herriko zortzi probintzietatik bisitatu ez dugun bakarra. Bisitaturekin ikuskizuna eraman esan nahi dut. Maule-Lexarren egitea gustatuko litzai-guke eta lanean ari gara hori lortzeko. Espero dut 'Ztandap' ikuskizunak Zuberoako atea irekiko dizkigula. Orokorrean, asko ikasi dut Euskal Herriko geografiaz azken sei urte haue-tan.

'Harpa Jotzen' podcastaren lehen denboraldia egin zenuten EITBren bidez, eta orain bigarren hitzartu duzue. Noiz hasiko da?

Martxoan estreinatuko da. Podcast horrekin joan zen urtean Rikardo Arregi kazetaritza sarietarako nominatu gintuzten, baina azkenean ez genuen irabazi. Horrek eman zigun aukera EITB podcasteko zuzendariari bigarren denboraldia proposatzeko eta baiezkoa eman zigun. Dagoe-



'Ztandap' ikuskizuneko kartel ofiziala. ION MARKEL SAEZ DE URABAIN

neko grabatzen ari gara. Lehen denboraldia zortzi atalekoa izan zen eta oraingoa 10ekoa. Gozatzen ari gara proiektu horrekin ere.

Zein gai nagusi izango ditu?

Eguneko gaiekin aritzen gara, gaitegi jakin bati jarraitu gabe: sukaldaritza, depilazioa, garrarioa, ilea... edozein gai. Ha-

sieran, Mirarik eta biok gaiari buruzko hausnarketa zoro bat egiten dugu eta ondoren, gonbidatu bat izaten dugu programako eta harekin aritzen gara hizketan. Antton Telleria izango dugu gurekin, Ana Goitia, Ane Lindane, Andoni Ollokiegi eta beste hainbat. Nahiko saltsa izango dela ziurtatuta dago. Umoreari beste

"ESPERO DUT 'ZTANDAP' IKUSKIZUNAK ZUBEROAKO ATEAK IREKIKO DIZKIGULA"

"UMOREARI BESTE HANKATXO BAT ATERATZEKO AUKERA DA ETA GUK GOZATU EGITEN DUGU"

hankatxo bat ateratzeko aukera da eta gozatu egiten dugu.

Lehen denboraldia entzuterik izan ez duenak non entzun lezake?

EITB podcasten aurki daiteke, baina topatzen ez duenak interneteko bilatzaileak 'Harpa Jotzen' podcast jarrita ere aurkituko du. 40 minutu inguruko saioak dira eta entzun errazak. Autoan entzuteko, etxeko garbiketa egin bitartean... halako momentuetarako oso egokia da. Fundamenturik gabeko gauzei egiten diegu tartea gure podcastean, betiere umoretik. Eskertu beharrean gaude gonbidatuei ere, inolako gidoi eta aurrez prestatutako ezer gabe etortzen baitira. Ez dute jakiten alde zurretik zer galdetuko diegun eta normalean ez dira euren gaiak izaten. Podcasteko arduradunei telebista saio bat nahi genuela ere esan diegu. Ea egunen batean bide hori ere irekitzen diguten.

Jendeak nolako feedback-a eman zizuen?

Oso sorpresa onak hartu ditugu. Emakume askok eskertu digute umoregileak tradizionalki gizonak izan direlako, eta gurekin identifikatua go sentitzen direlako. Oso ondo pasatzen omen dute bai podcastarekin, bai ikuskizunekin. Jendearengana iritsi omen da. Datu oso onak eman genituen. Fikziozkoen artean datu onenak lortu dituztenen aurrean gaude. 'Harpa jotzen' eta 'Luze edo Motz' biak garai berean aritu gara egiten, eta batzuek bietako batean ezagutu eta bestera eraman ditu esperientziak, eta alderantziz.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
oilasko erreak, ogitartekoak, razioak...
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrena 6, Usurbil.

943 361182
EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrena 8, USURBIL
943 37 00 08

Otar-Goxo
Elkargaiak
Zubiarrena 2, 943 36 55 81

"Jarraipena eman nahi diogu joan zen urteko xake topaketari"

BROGAN ESTEVEZ XAKE TOPAKETAKO ANTOLATZAILEA

laz xake topaketa antolatu zuten gaztetxoentzat liburutegian. Saio bakarra izango zena, bi saio bilakatu zen proposamenak jasotako harreragatik. Aurten, bigarrenagoz antolatu dituzte topaketak.

Iazko estreinako edizioko arrakastaren ondotik, 2. Xake Topaketa antolatu du Sutegi udal liburutegiak otsailaren 16 (LH 1,2 eta 3 mailakoentzat) eta 23rako (LH 4. mailatik gorakoentzat) 17:00etan liburutegian bertan. Hitzorduotarako izena Sutegin bertan eman beharko da. Brogan Estevez liburuzainak gidatuko ditu topaketak eta NOAUA!k harekin egoteko parada izan du.

NOAUA! Lehen xake topaketa antolatu zenuten joan zen urtean. Orain bigarrena proposatu duzue. Joan zen urtekoa uste bezain ondo joan zen?

Uste baino hobeto. Hasiera batean egun bakarreko ekintza izan behar zuen, baina azkenean bi saio egin behar izan genituen jende askok eman zuelako izena. Gainera, tamalez, baten bat kanpoan ere geratu zen. Hogei pertsonarentzat baino ez daukagu lekua eta materiala, eta beraz, ezin izan genien denei jokatze aukera eman. Aurten horiei ere aukera eman nahi diegu eta elkargune bat sortu. Azken batean, jarraipena eman nahi diogu joan zen urtekoari. Aurten, bi saiorekin nahikoa ez dela ikusten badugu, hirugarren ostiral bat ere egin genezake. Agian, txikienak lehen saioan, ondoren LH4tik aurrerakoak, eta DBHkoak hirugarren saio batean. Aukera hori hor legoke, baina izen ematea nola joaten den



Hainbat gaztetxo xakean jokatzen, liburutegiko iazko topaketan.

ikusi beharko dugu aukera hori mahai gainean jarri aurretik.

Horrenbeste umek daki xakean jokatzen?

Bai, hala ematen du. Eric Juez irakasle lanetan aritu zen eta haren ikasle izandakoek jokatzen jarraitzen dute. Gazteagoek ere badirudi badakitela jokatzen eta interesa ere badutela. Lehiakortasuna alde batera uzten dugu topaketetan eta jendea animatzen da.

Parte hartu zutenek edo ingurukoek eskatu dizuete bigarren edizioa edo zeuen ideia izan da oso-osorik?

Biak, esango nuke. Jokalari diren horietatik hasi ginen ideia honi tiraka eta oso gustura egin zirela esan ziguten.

Beste batzuei ere galdetu genien zer moduzko esperientzia izan zen, eta oso ona esan ziguten haiek ere. Beraz, horri jarraipen bat ematea erabaki genuen. Ostiraletan jokoak izaten ditugu liburutegian: kartak, xake, damak... gehien jokatzen dutena eta gustatzen zaiena xakea da, dudarik gabe. Hori ikusita aurrera jarraitzea erabaki genuen. Zaletasuna badago.

"LEHIAKORTASUNA ALDE BATERA UZTEN DUGU TOPAKETETAN ETA JENDEA ANIMATZEN DA"

Nolako funtzionamendua izan zuen topaketak?

Mahaian bi taula jartzen ditut eta zenbata egiten ditut. Sistema suitzarra jarraitzen dugu irabazleek irabazleen kontra egin dezaten, eta galdu dutenek galdu dutenen aurka. Beraz, bikoteak egin eta sistema hori jarraitzen dugu. Modu horretara, maila antzekoa duten jokalariek elkarren aurka jokatze aukera dute. Adin kontuak ere badu garrantzia maila kontuan, normalean zenbat eta helduago izan, orduan eta hobeto jokatzen dutelako. Ez du zertan kasu guztietan hala izan, baina nahiko ohikoa izaten da. Zazpi neurketa izaten dira, bost minutu bakoitzak (orotara hamar) eta, beraz, pare bat orduko saioa izaten da. Paper bat jartzen dut bikoteekin eta hala, bakoitzak jakiten du zein mahaitan eta norekin tokatu zaion. Txikienekin paperean jarri beharrean, nik lagunduta egiten dugu. Aurten, agian, zazpi neurketa beharrean 6 edo bost egingo ditugu horrenbeste ez luzatzeko. Ikusiko dugu. Hori bai, ordulariarekin jokatuko dituzte partidak eta erakutsi egingo diegu nola erabiltzen den ordularia xakean.

Aurtengo topaketek ezberdintasun nabarmenik izango dute joan ziren urtekoekin alderatuta?

Ez, joan zen urteko funtzionamendu bera izango du. Ez da berrikuntza nabarmenik izango.

Interesa duenak zer egin behar du izena emateko?

Liburutegian eman beharko da izena. Horretarako izen-abizenak eta jaiotze-data zehaztu beharko dira zein saio dagoen jakiteko adinaren arabera. Saioak hasi baino egun bat lehenago itxiko genuke izen ematea bikoteak egiteko denbora izateko eta sisteman datuak behar bezala sartzeko.

"Euskara minorizazio gorriko egoeran dago"

Iñaki Iurrebaso soziolinguistak 'Euskararen egoera gaur. Zer diote datuek?' hitzaldia eskainiko du otsailaren 14an Potxoenean. Hausnarketarako hainbat gako eskaini nahi ditu saio honen bidez.

Martxoaren 19an helduko den 23. euskararen aldeko lasterketa girotzeko Korrika Kulturaren lehenengo hitzordua otsailaren 14rako iragarri dute Korrika Batzordeak, Usurbilgo Udalak eta UEMak 18:30ean Potxoenean; "Euskararen egoera gaur. Zer diote datuek?" hitzaldia, Iñaki Iurrebaso soziolinguistarekin.

"Asko edo gutxi erabiltzen ote da euskara dagoen ezagutzarako? Aurrera goaz ala atzera goaz euskararen indarberritze-prozesuan? Zer perspektiba izan ditzakegu aurrera begira? Zein paper joka dezake udalerri euskaldunek euskararen indarberritze-prozesuan?". Galdera hauei eta beste batzuei erantzun die Iurrebasok gai honi buruz kaleratu diren datuetan oinarrituta.

Euskararen biziberritzerako ikuspegia ezagutarazi

Usurbil kide duen Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) ikerketa-teknikaria da hizlaria. Duela urtebete, 'Hizkuntza gutxituen jarraipena, ordezkapena eta indarberritzea neurtzeko demolinguistikazko tresna metodologikoak garatzen. Euskal Herrirako aplikazio praktikoa' doktore tesia aurkeztu zuen eta Mankomunitateak oso garrantzizkotzat jo du "euskararen biziberritzerako ezinbestekoak diren ikuspegi horiek ezagutaraztea, eta horretarako hitzaldi zikloa antolatu du hainbat herritan, bateko eta besteko udalekin zein euskara elkarteekin lankidetzan. Era berean, erakundeetako, eus-



Iñaki Iurrebaso UEMako ikerketa-teknikaria Potxoenean izango da datorren astean.

kalgintzako, alderdietako eta sindikatuetak arduradunentzat ere antolatu ditu gai honen inguruko aurkezpen sakonagoak, Iñaki Iurrebasorekin". Testuinguru honetan antolatu da baita Potxoeneko hilaren 14ko hitzaldia.

Ahul, hizkuntza-gaitasunean

Hausnarketarako hainbat gako eskaini nahi ditu saio honen bidez. Gakoon artean, kezkatzeko moduko mezurik ere plazaratuko du. Iurrebasok eginiko behaketa lanaren arabera, berak aztertutako adierazleek "gertuago erakusten dute hizkuntza heriotza-egoera batetik balizko elebitasun orekatu egoera batetik baino".

Geure hizkuntza, "euskara minorizazio gorriko egoeran dago", bere erabilera, transmisioa, hizkuntza-bilakaera eta hizkuntzen nagusitasuna aintzakotzat hartzen badira. Bereziki, "ahul" dagoela dio euskara hizkuntza-gaitasunean. Aldiz, "indartsu gaztelera eta frantsesa". Iurrebasok ohar-tarazi duenez, euskararen eza-

"EUSKARAREN EZAGUTZAREN ETA ERABILERAREN ARTEKO ALDEA HANDITZEN DOA"

IÑAKI IURREBASO

gutzaren eta erabileraren artean alde handitzen doa, euskaldunen profila aldatzen doalako. "Hezkuntzaren ondorioz, gero eta herritar gehiagok daki euskaraz, baina horietako askorentzat ez da lehen hizkuntza, ezta ohiko hizkuntza ere. Kontzientziarik ezean, horrek eragin handia du gero erabileran".

Horregatik, ezinbestekotzat jotzen dute "euskararen arnasguneak eta udalerrri euskaldunak babestea, sendotzea eta hedatzea".

'Korrika laguntzaile' egiteko aukera

Korrika Laguntzaile izan gaitezke eta hainbat abantailez gozatu ahalko dugu: 300 sari baino gehiago eskuragarri jarriko dituzten asteroko zozketak, Korrikaren nahiz AEK-ren ekimenetan lehentasuna edo deskontuak (AEK-ko ikastaroetan, AIZU! aldizkari harpidetzan...), ekimenaren berri emanago duen buletina jasotzeko aukera...

Kilometroak erosteko aukera

Korrikak gure udalerrri honetan egingo duen ibilbideko kilometroak eskuratzeko aukera duzue. "Kilometro osoa edo erdia" erosi ahalko dela ohar-tarazi dute Etumeta AEK euskaltegitik. Informazioa usurbil@aek.eus helbidean eskura daiteke.



Jon Uribe Navarroken omenaldi egunean bere lagun eta senideek ateratako talde argazkia. Kontzertu gaueko irudiak, noaua.eus atarian dituzue.

Jon Uribek herri honen gogoan darrai

Hunkigarria eta era berean Jon Uribe Navarro bezain bizia izan zen, bere omenez otsailaren 3an antolatu zioten Jontxu Rock kontzertu gaua. Bere lagun eta senideak batu zituen, herriko musika taldeen eskutik, gazte kalezartarrari gorazarre egin zion kontzertu gauak.

Egun jardunean direnak eta apropos gazte kalezartarra omentzeko nahiak bueltan ekarri zuen talderik ere izan zen, otsailaren 3an Mikel Laboa egindako Jontxu Rock kontzertugauean. Duelahamar urte zendutako herrikideari gorazarre jendetsua egin zioten bertaturiko musikari, lagun, senide eta herrikideen artean. Ez zeuden denak, bazirelako bertan egon nahi baina hitzordura joan ezin izan zutenak ere. Guztien artean, halere, Jonek bere bizitzan zehar emandakoa bueltan helarazi nahi izan zioten, berak gustuko izango zuen moduan, biziki estimatzen zituen herriko musika taldeekin jaialdi baten bueltan. Izan ere, usurbildar musikarien jarraitzaile sutsua zen gazte kale-

zartarra; bereziki, garai bateko Mendeku Itxua taldearena. Taldeko kideetako bat zen Ixak Arruti. Bere eskutik bizi izan zen jaialdiko une hunkigarriena, Ixakek omendua hil berri-tan, haren agurrerako sortu zion kanta abestu zutenean guztiek batera. Hala dio: "Jon betirako, zaitut gordeko nire bihotzean. Beti izango dut, irrifar bat zu oroitzean". Jontxuren aldeko ereserki hau berriz entzuteko aukera izan zen larunbatean, Uribe hil zeneko hamargarren urtemugako oroimen ekitaldian.

"Bizitza osorako bihotzean"

2014. urtean zendu zen gazte kalezartarraren hamargarren omenaldira batu da batu da baita lerroon bidez, Jontxuk haurtzaroan eta nerabezaroran

Udarregi ikastolan hurbileko bidelagun izan zuen Mariaje Imaz ere, NOAUA!ra helarazi dizkigun hitz ederrokin. "Jontxu. Jontxu zen ikastolan bi urterekin hasi zenean, Jon Uribe urteetan aurrera egin zuenean, gure Jon maitea bizitza osoan. Jonek ez zuen zirrikiturik aurkitu behar izan sartzeko, inon sartzeko. Ateak berehala irekitzen zituen, bere irribarrea mugarik gabe za-

"ATEAK BEREHALA ZABALTZEN ZITUEN, BERE IRRIBARREA MUGARIK GABE ZABALTZEAREKIN BATERA"

baltzearekin batera. Jon sekula ez zen izan inklusiorako planetan aurreikusitako izen-abizen duen zerrendetako bat. Jonek bere izaera indartsuarekin aurrera egiten zuen etengabe, gure korridore eta geletan zehar. Lehenbizi guztia emanez, eta ondoren, besteek hari eskaintzeko prest zeudena jasoz eta pozez prest hartzeko, inoiz ezer eskatu gabe; lekutxo bat besterik ez, gure alboan. Musikazale borrokatua, herriko talde guztiekin herriz-herriz ibilia kontzertuetan. Musika zen bere pasioa eta musikazale guztien ondoan bere bizitza eman zuen Jonek, Jontxuk, Jon Uribe Navarrok. Gure Jon, gure Jon maitea. Bizitza osorako bihotzean daramaguna".

Familiaren eskertza

Lerroon bidez, jasotakoa bueltan eman nahi dute Jon Uribe Navarroken senideek. Izan ere, biziki eskertu nahi dute Jontxu Rock omenaldi eguna antolatu zutenak, eta bereziki, ekimen honen sustatzaile lan nagusia egiten aritu den Iñaki Irazusta herrikidea. Baita, nola ez, otsailaren 3ko kontzertu gauean parte hartu zuten guzti-guztiak.

KULTURALDIA 2024

OTSAILAK 16-25



BIZKARSORO Pelikula emanaldia eta solasaldia
otsailak 16, **OSTIRALA**, 19:00 Sutegi

TAPIA ETA LETURIA Kontzertua
otsailak 17, **LARUNBATA**, 22:30 Aginagako Eliza Zaharrean




ZTANDAP Binakako bakarrizketa
otsailak 18, **IGANDEA**, 18:00 Sutegi

TOTO Antzerkia
otsailak 24, **LARUNBATA**, 19:00 Sutegi




ETXE BAT Poesia errezitaldi musikatua
otsailak 25, **IGANDEA**, 18:00 Sutegi



Usurbilgo Udala


NOAUA



Labirintoa

ALdea dago!

Bi zamaltzain hauek ez dira berdin-berdinak. Aurki itzazu bien artean dauden aldeak. Bederatzi dira.



Zati engainagarriak

Zortzi zatitxo hauetatik lau iruditik hartuta daude, eta beste laurak engainagarriak dira, hau da, antza baduten arren, ez dira guztiz berdinak. Bereiz itzazu.




Soluzioak 20. orrialdean.

Itzala

Zein da patinatzailearen itzal zuzena?



HELMUGA



Osatu lauki zuriak, domino zatiak zentzua izan dezan.

DOMINOAN

Inauteriak

Icons and letters in the grid:
 - Top row: Egg, Z, Cabbage
 - Second row: Cheese, Snake, B, A
 - Third row: Person, Ghost, Fire, Red box
 - Fourth row: Orange, Skirt, Green box
 - Fifth row: Bee, M, Yellow box, A
 - Sixth row: Tongue, H, Blue box, Brown box
 - Seventh row: T, Purple box



Aldameneko hori oso pertsonaia ezaguna da Uztaritzen (Lapurdi). Inauterietan ateratzen da, eta garai bateko bufoiaren funtzioa du. Bere izena zein den jakin nahi baduzu, bete lauki zuriak marrazkiei begiratu. Azkenik, ertz lodiz nabarmenduta dauden laukietako hizkiak dagokien tokira eraman (erreparatu koloreari).



Santa Ageda bezperako kantu-jira Egurtzegin hasi zuten.



Zaintzaz koplaka aritu zen Egurtzegin Aitor Agirre Zapirain herrikidea.



Kantu Taldeak antolaturiko birak herri erdigunea zeharkatu zuen.



Makila kolpeekin lurrari deiadarka. Irudi gehiago, noaua.eus atarian.

ORIANTE BHI
BI ERAIKIN, INSTITUTU BAT!
DBH-ko IKASLEEN ONARPENA 24-25
OTSAILAREN 7-tik 23-ra



Landaberri eraikina DBH 1-2
Pintore 2,
20160 Lasarte-Oria
943 89 94 94



Larrekoetxe eraikina DBH 3-4 eta Batxilergoa
Buenos Aires aldapa 1,
20160 Lasarte-Oria
943 89 94 92

12-18 urte
DBH-Batxilergoa
Jangela zerbitzua
Euskal kultura eta
kulturartekotasuna bultzatuz



ORIANTE
Institutua

www.oriarte.eus

'Pauso Berriak' programa berri du Urbilek

Urbil merkataritza-guneak beste urte batez sinatu du bere lankidetzaz hitzarmena "Pauso Berriak" programarekin. Atzegi eta Gureak erakundeek sustatutako gizarteratze eta laneratze programaren helburu nagusia desgaitasun intelektuala duten pertsonen ohiko lan-merkatuan sartzen laguntzea da.

Joan zen astean berri zuten aipatutako lankidetzaz hitzarmena. Aipatzekoa Oscar Guinaldok Urbilen praktikak hasi zituenetik 14 urte bete zirenean berri zuten hitzarmena. Oscar, kolaboratzaile bat baino gehiago, zentroko giza taldearen "funtsezko zutabe" bihurtu da, eta garbiketa- eta laguntza-lanetan egindako "ekarpen baliotsu-gatik" nabarmendu dute.

Hitzarmena sinatzean, Ba-kartxo Bandres eta Susana Pastor, Gureak elkarte arduradunak, akordio honen balioa azpimarratu zuten. "Lankidetzaz mota hauei esker, Gureak-en Okupazio Zerbitzuaren jarduerak dibertsifikatu ditzakegu. Garapen sozio-la-

boralerako eta pertsonalerako aukerak eman ahal dizkiegu, Oscarrek bezala, beren egunerokotasunari erantzukizunez eta ondo egindako lan-gatik ilusioz aurre egiten dioten pertsonen".

Leyre Lobato, Urbil: "Pertsonen gaitasunetan sinisten dugu"

Leyre Lobato Urbil merkataritzako guneko gerenteak horrelako programen garrantzia azpimarratu zuen, parte hartzaile zuzenei bakarrik mesede egitetik harago doazela azpimarratuz: "Pertsonen gaitasunetan sinesten dugu, eta, beraz, haien beharretara egokitzen diren parte hartzeko aukerak sortzen ditugu".



Oscar Guinaldok Urbilen praktikak hasi zituenetik 14 urte bete dira.

Leyre Lobatok lan-ingurune inklusiboak eta egokituak sortzeko etengabeko konpromisoa adierazi zuen, aniztasuna, berrikuntza eta ekipoen errendimendua sustatzen dituen aktibo gisa aitortuz: "Urbileko langile guztiak, beren gaitasunak edozein direla ere, baloratuta sentituko diren eta gure proiektu komunaren zati integrala izango diren espazioa erai-

kitzeko konpromisoa hartu dugu".

Hitzarmen hau berritzea, ez dela soilik inplikaturako erakundeen arteko elkarte iraunkorraren lekukotza esan dute arduradunak, baizik eta inklusioa, betebeharrak morala izateaz gain, guztiontzako gizarte bidezkoago baten eraikuntzan egindako inbertsioa ere badela gogorarazi dute.

Musukoa, gomendagarria berriz

Hiru astez derrigorrezkoa izan ostean, otsailaren 2az geroztik, musukoa erabiltzea gomendagarria baino ez da osasun zerbitzuetan, "ez nahitaezkoa" Eusko Jaurlaritzak kaleraturiko dekretuaren arabera, ar-

nasbideetako birusen intzidentzia murriztu ostean. Halere, kutsatzeko arrisku handieneko eremuetan prebentzio-neurriak hartzen segitzeko deia egin du Osasun Sailak.

Udal aurrekontuak, betiko onartuak

Alegazio epean izan ziren tartean inork erreklamaziorik aurkeztu ez ostean, abenduaren 20ko osoko bilkuran estreinakoz kontrako botorikgabe hasierako onespina emandako 2024ko udal aurrekontuak

behin betiko onartu ditu Udalak. Azken hamarkadako aurrekontu proiektu handienetakoa da aurtengoa. 13 milioi euro pasatxo izango ditu herri honek urte berri honi begirako egitasmoei heltzeko.

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA
www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

·EGUNEKO MENUA
·KARTA
·RAZIOAK
·HANBURGESAK
·BOKATAK

eskura
elkadura eta dietetika aholkularitza
DIABETESA, HIPERTENSIOA,
GIZENTASUNA, ELIKADURA
ETA KOLESTEROL ARAZOAK

688 843 696
Zubiaurena 1, 1c Usurbil



Usurbilgo udal gobernu taldeko kideak Zumarteko aurkezpenean, Legealdiko Planaren liburuxka eskuartean dutela.

"Usurbiltzen jarraitzeko plana da hau"

Usurbilgo udal gobernu taldeak 2023-27 legealdirako plangintza aurkeztu zuen otsailaren 2an Zumarteko ganbaran. "Usurbil Bizi" herri egitasmoari edota herri nahiz auzoen eraberrikuntzara zuzenduriko 120 egitasmo garatu nahi dituzte datozen urteotan.

Etkez etxe banatuko duten aldizkari batean dituzue zere-ndatuak, datozen lau urteotarako proposatu dituzten 120 egitasmo berriei buruzko xehetasunak, Zumarteko aurkezpenean adierazi moduan, "Usurbil bizigarriagoa, zaintzaileagoa, jasangarriagoa eta berdinzaleagoa erakitzen jarraitu ahal izateko". Bestela esanda, "Usurbiltzen jarraitzeko plana da hau, beraz", ekarpenak jasotzeko zabalik dagoena eta hauteskude-tarako herri-programatik, aurreko legealdiko parte hartze prozesuetatik eratorritako plan estrategikotatik eta udal langileen zein hautetsien ekarpenekin osatu dutena.

Eraikuntza lan hau auzolanean egiteko gonbita egin zuten udal gobernu taldetik. "Garai aldakor eta ezegonkor

hauetan" nora eta nondik jotzeaz gain, "zer eta nola egin" zehazten duen bide-orri gisa definitu zuen alkateak prest duten Legealdiko Plana. Lotua dago guztiz, urria amaieran aurkeztu zuten etorkizunera begirako "Usurbil Bizi. Lau misio, herri bat" lelodun herri egitasmoarekin. Bertan, lau herri erronka proposatu zituzten, erabakigarritzat jotzen duten hamarkada honetan, bizi dugun garai aldakorra

NORA ETA NONDIK JOTZEAZ GAIN, ZER ETA NOLA EGIN ZEHAZTEN DUEN BIDE-ORRIA IZANGO DA PLANA

tarteko, "datorkigun munduaz jabetu eta geure buruak garai historiko honi aurre egiteko prestatzeko".

Bizi-plan pertsonalizatuak

Batetik, Usurbil zaintzaileagoa izate aldera, "pertsona ardatz izango duen arreta eredu" sustatu nahi dute; "pertsona bat, bizi-plan bat". 2030era begirako honako misioa definitua dute: "norbere bizitza proiektuari erantzungo dion

LEGEALDIKO PLANA LOTUA DAGO GUZTIZ "USURBIL BIZI. LAU MISIO, HERRI BAT" HERRI EGITASMOAREKIN

zaintza eredu integral eta duina lortzea, erantzukidetasuna, eragileen arteko lankidetzeta eta zaintza langileen profesionalizazioa eta duintasuna ardatz izango duena". Horretarako, helburuok finkatu dituzte: 65 urtetik gorako pertsonen laurdenak zaintza-plana martxan izatea, Usurbilgo bost auzotan laurdena gizonetzkoak izango diren zaintza sareak abiaraztea, zaintza langile eta familien erdia zaintza ekosisteman egotea, eta, azkenik, etkez etzeko zerbitzua jasotzen dutenen kopurua eta zaintzarako prestazioa jasotzen dutenena orekatzea (%50 eta %50).

Legealdi honetarako, proba pilotu bat martxan jarriko dute familia batzuekin. Horrez gain, auzo batean zaintza programa bat abiarazi nahi dute, zaintzaileen profesionalizazioa eta ahalduntzean sakondu. Ekipamenduei dagokienean, laster irekiko dute Ugartondoko Txirikorda eta Matiarekin babesdun sei etxebizitza egokituko dituzte Egurtzegin, zaintza behar duen pertsonak eta zaintzaileak elkarrekin bizitzeko. Azkenik, alor honetan egindako guztia dokumental batean grabatzen ari dira.

Eraldaketa proiektuen erakusleihoa

Euskara, kultura eta herri identitatea ardatz hartuta, tokiko ekonomia sustatuko duen bestelako turismo eredu sustatzeko martxan den 650 Usurbil Bizi herri egitasmoaren baitan, bestalde, "2030erako, Usurbilgo bisitarien %30ak Usurbilgo komunitate zaintzailea, euskal arte garaikidea, ondare kulturala eta ekologia ardatz duen gizarte eraldaketa ezagutu eta bisitatu dezala lortzea" nahi dute. Epe motzera begira, oroimen historikoa berreskuratzeko Usurbil 1936 elkarrekin lankidetzan, Andatzako lubakietarako ibilbidea osatuko dute, Usurbilgo zaintza eta hondakinen kudeaketa ereduak ezagutaraz-

teko bisita gidatuak antolatu asmotan dira. Salvatore elizako ondarea ezagutarazteko elizarekin hitzarmen bat ere adosten ari dira. Eskuartean proiektu gehiago ere badituzte; hala nola, aplikazio baten garapena eta Albaolarekin lankidetzan, "Erriorearen Usurbil" egitasmoa bideratzeko.

Udala hurbilago

Udala herritarrengana gerturatzera dute beste erronketako bat. "2026rako Udalak herritarrei eman beharreko zerbitzua hamarrekoa izatea" nahi dute; gehienez hamar minutu itxarotea udal zerbitzuetan eta hamar eguneko epean herritarren eskariei erantzutea. Legealdi honetan, antolatu eta funtzionatzeko modu berria izango dute martxan. "Departamentalismoa" gainditu eta sailen arteko lankidetzara igaroko dira hiru eremu handietan lan eginda, eta aurrerantzean, gainera, misioen logikaren baitan jardungo dute. Horrez gain, aurrez aurreko zerbitzuaren osagarri, Udala osoki digitalizatu nahi dute eta eraikina berritu. Udal langileei dagokienez, 26 udal lanpostu egonkortzeak %50etik %15eraino murriztuko dute langilegoaren interinitate tasa, baina berau murrizten segi nahi dute. Lan-hitzarmen berria ere negoziatzea egokitu zae.

Trantsizio ekosoziala

Laugarren erronka, trantsizio ekosoziala da eta harentzako etorkizunerako misioa asteotan ari dira lantzen eragile eta herritarrekin Potxoenean abian duten ko-sorkuntza prozesuaren baitan. Bertan jasotako "ideiak eta proposamenak Legealdiko Plan honi gehituko dizkiogu", iragarri dute udal gobernu taldetik. Horrez gain, beste hainbat neurri, hauek bai, zehaztuak dituzte. Mugikortasunari dagokionez, faseka garatzeko herri osorako exekuzio proiektu bat idatzi nahi dute, Zubieta eta San-



Zumarteko ganbaran egin zuen aurkezpena udal gobernu taldeak.

tuenea arteko bidegorri proiektuari heldu. Aldundiari eskatua dioten Oxtapeko biribilgunearen erronka ere hor dago, baita Aginagako eta Txokoaldeko N634 errepideko trafikoa baretzea oinezkoen segurtasuna bermatzeko. Energia trantsizioaren alorrari dagokionean, eraikin publikoetako energia kontsumoa murriztu nahi dute eta kaleko argiterian LED teknologia ezartzen amaitu. Horrez gain, erregai fosildun udal ibilgailuak elektriko izatera igaro nahi dute, udal eraikinetako beroketa sistemetan kontsumo baxuagoko instalakuntzak ezarri, Kiroldegitik hasita. Bestalde, berriki aurkeztu den Sortalde Usurbilgo energia berriztagarrien komunitateko bidelagun izaten segiko du Udalak. Testuinguru honetan, plaka fotovoltaikoen ezarpena sustatu asmo dute. Azkenik, Aginagako ur

**TRANTSIZIO
EKOSOZIALERAKO
ETORKIZUNERAKO
MISIOA ASTEOTAN
ARI DIRA
DEFINITZEN**

zikinen saneamendurako proiektua gauzatzen hasiko dira. Nekazaritzaren alorrari dagokionean, ustiapen berriak abiarazten lagundu, basogintza ekologikoa sustatu edota landa eremuko lur-ondarea handitu asmo dute.

Auzo eta herrien berritzea

Usurbilgo auzo eta herriak eraberritzen segiko dute legealdi honetan, leku bakoitzean eratuak dituzten herrikide eta eragileen bilguneekin lankidetzan. Aginagan, Elutxeko bidea eginda, bertako berdegunean belaunaldiartekotasuna sustatzeko ekipamenduen lanketa iragarri dute, Kaxkoaren berrantolaketarekin batera. Txokoalden, "zubi berriaren konponketa eta birgaitzea kudeatuko dugu". Horrez gain, tren pasabidearen ezabatzea aztertzeke jarraipen batzordean parte hartuko dutela ere

**USURBILGO AUZO
ETA HERRIAK
ERABERRITZEN
SEGIKO DUTE
ABIAN DEN
LEGEALDI HONETAN**

gaineratu zuten. Azken urteotako diagnosi eta auzo plana landuta, Santuenea integralki eraberritzeko proiektuak abiaraziko dituzte: sarbidea irisgarri bihurtu, aparkalekuak berrantolatu, Txokoalderantz doan bidea oinezkotu, frontoiko lokala erabilgarri jarri... Zubietan, HAPOaren lanetatik datorren ekipamendua diseinatu nahi dute. Atxegalden, hobekuntzak egiteko lanketa abiaraztera doaz martxoan. Etxealdian, bizilagunekin landutako irisgarritasun planaren lehen fasearen baitan, beheko aparkalekua berrantolatu eta berdegune bat sortu nahi dute, Kale Nagusirako igogailua eraikitzeke bidea jorratzen hasteaz gain. Azkenik, Kalezarren, martxoan ireki asmo dute Emakumeen Etxea eta auzo ekipamendua bateratuko dituen Pelaiotena. Bere ataria ere oinezkotu eta ondotik pasatzen den bidetik ibilgailuen joan etorria mugatu nahi dute, Haur Eskolara igotzeko aldapa konpondu eta N634 errepideko autobus geltokiak eta Egurtzegirako igogailuko lanak amaitzearekin batera.

Egitasmo gehiago

Egitasmo gehiago ere badituzte eskuartean. Besteak beste, euskararen erabilera normaltzeko plana berritzea, musika taldeen entsegu lokalen ordenantzen lanketa, Sutegi energetikoki eraginkortzea, Elkargunea sustatzea. Kulturgintzako proiektu hauez gain, jada hamar bolondres dituen HarEman egitasmoari ekin edota Haur Eskolaren gogoeta kaleratu nahi dute, jolasguneei buruzko plana diseinatzearekin batera. Azkenik, kirol ekipamenduen mantentze lan prebentiboen plana, haien erabiltzaileen mahai teknikoaren sorrera edota kirol klub herriko klub guztientzako administrazio zerbitzu komun bat jartzeko bideragarritasun azterketa iragarri zituzten.



Gipuzkoako Batzar Nagusietako Jasangarritasun Batzordeak iragan astean egindako bilkura.

Zubietako erraustegia hizpide berriz

Zubietako gaineko hondakinen tratamendu planten sare horretan hidrogeno berdea ekoizteko proiektua eta urteotako mantentze lanen azpikontratazioa hizpide izan zuen Gipuzkoako Batzar Nagusietako Jasangarritasun Batzordeak urtarrilaren 29an egindako bilkuran.

Behar besteko finantziazioa eskuratzen badute, aurten bertan hidrogeno berdea ekoizten hasi daitezke, Zubietako gainean. Proba pilotu modukoa abiarazi nahi dutela zioen Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzio (GHK) lehendakari eta Foru Aldundiko jasangarritasun arloko diputatu Jose Ignacio Asensiok urtarrilaren 29an Batzar Nagusietan, Elkarrekin Gipuzkoako eginiko galderei erantzunez.

Izan ere, egitasmo horri buruzko xehetasunak ematea galdegin zion Asensiori; besteak beste, esleipenaz edota 2,5 milioi euroko inbertsioari nola egingo dioten aurre, "aurrekontuen luzapen egogorran egonda". Elkarrekin Gipuzkoako bozeramaile Miren Etxebesteren esanetan, ha-

sierako helburuetan ez zegoen aurreikusia halako egitasmorik eta ondorioztatu zuenez, "pentsatzekoa da hondakinak balorizatzeko ezintasunagatik" sustatu dutela hidrogeno berdearen proiektua, "berdez margotzeko orain arte berdea izan ez dena". Bestalde, Zubietako erraustegia martxan jarri zenetik "egindako azpikontratazioen eta zerbitzuen enpresa emakidadunei dagokienez egin diren aldake-

**"AURTEN BERTAN
HIDROGENO
BERDEA EKOIZTEN
HASI DAITEZKE,
ZUBIETA GAINEN
AZPIEGITURETAN"**

ten" berri ematea ere eskatu zuen.

Batzarkideen talde honek azaldu zuenez, bildu ahal izan duten informazioaren arabera, Zubietako planta honen kudeaketa eta funtzionamenduaz arduratzen den Ekobal enpresa emakidadunak era berean, "bideragarritasun finantzarioa arriskuan duen" enpresa bat azpikontratatu du, erraustegiaren mantenu lanetarako.

**J.I. ASENSIO,
FORU DIPUTATUA:
"KONTRATAZIO
GUZTIAK ARAU
GUZTIAK BETETA
EGIN DIRA"**

Garraioaren deskarbonizazioarako

Asensiok erantzun zuenez, "kontratazio guztiak arau guztiak beteta egin dira". Elkarrekin Gipuzkoako eginiko galderei erantzuteko denbora eskatu zion, izan ere, "600 hornitzaile baino gehiagoko zerrenda batez ari gara, 2023an fakturazioa izan dutenak", eskatutako informazioa jasoko zutela adieraztearekin batera.

Hidrogeno berdearen proiektuari dagokionean, lehenbizi argitu nahi izan zuen kontua zera zen, egitasmo hau ez dela erraustegian kokatuko, handik hurbil dagoen biometanizazio plantan baizik. Bigarrenik, esperientzia pilotu bat izango dela. Gipuzkoako etxeetan bildutako zati organikoa (40.000 tona baino gehiago urtero foru diputatuaren esanetan) tratatzen den eremu horretan "sortutako biogasa hidrogeno bihurtzeko proiektua da", Asensioaren esanetan. Biogas hau, "garraioa deskarbonizatzeko" baliatu nahi dute. Foru diputatuak aipatutako datuen arabera, "eguneko 500 kilo hidrogeno sortzea aurreikusten da". Horrekin, "bidaia-rien garraioaz arduratzen diren bost autobus eta hon-


dakinen bilketarako bost kamioi hornitzeko gai izango litzateke". Eguneko 2.000 kiloko ekoizpena heltzeko aurreikuspena dute.

Halere, aurrekontuen mende dago egitasmo hau.

Ikuspegi ezberdinak

Asensio adierazitakoari erantzuteko tartean, Elkarrekin Gipuzkoatik adierazi zuten, galdera egiteko azalpenetan aipatu gabe utzi zutela, hidrogeno berdea ekoizteko proiektua, erraustegiak behar beste sortzen ez duen argindarra "modu batean konpentsatzen" ote zetozen, baina argitu diguzu horrekin ez duela zerikusirik". Izan ere, erraustegiak "ez duela balorizazio energetikoko agiria eskuratu" behar adina argindar ez sortzeagatik, gaineratu zuten Etxebestek eta horrek ingurumen baimen bateratuan eragiten duela. Bere garaian, Asensio esandakoa gogora ekarri zuten, 45.000 etxebizitza argindarrez hornitzeko adina energia sortuko zuela erraustegiak. Ea helburu hori bete den galdetu zuten Etxebestek.

"Apustu interesgarritzat" jo zuten PPK eta aurreikuspenez galdetu zion Inigo Manriquek. Asensio emandako azalpenak egokitzen jo zituen PSEren bozeramaile Susana Garcia Chuecak. "Europako politika aurreratuenekin lerrotaturiko" egitasmotzat jo zuten. Ildo beretik mintzatu zen EAJ-ren ordezkari eta Usurbilgo alderdi bereko zinegotzi Xabier Otxoa. Asensioaren azalpenak egokitzen eman eta zalantzak argitzeko Zubietako azpiegiturera bisita egitea proposatu zuten. Hidrogeno berdearen proiektuari dagokionean, "albiste ona da nire ustez" adierazi zuten, "Europar eta mundu osoan hidrogeno berde horregatik apustua egiten gabiltza". Halere, gaineratu zuenez, aurrekontuak onartu artean, "beste urtebete itxaron beharko da zoritxarrez, aldaketa klimatikoari borroka egi-



Erraustegiari buruzko argibide eskaerek ez dute etenik Batzar Nagusietan.

teko. Koherentzia politikoa batzuetan ez da existitzen, edo ez dut ikusten", gaineratu zuten. EHBildutik zuhurtzia agertu nahi izan zuten. Luix Barinagarmenteria bozeramaileak adierazi zuenez, "garraio publikoaren deskarbonizazioaren alde gaude, baina ikusi nahi dugu benetan hori egingarria ote den edo ez. Proiektua gehiago aztertu behar dugu eta orduan emango dugu gure iritzia".

Adierazpen erronda honen amaieran, bigarren hitza hartu zuten Asensio. Faltsutzat jo zuten Elkarrekin Gipuzkoako bozeramailearen diskurtsoa. "Aholku bat emango dizut, hobeto informatu zaitez", aurrepegiatu zion foru diputatuak Etxebesteri. 2022an eta 23an ere balorizazio energetikoaren agiria eskuratu dutela ziurtatu zuten eta helaraziko ziotela hitz eman. "Balorizazio ener-

MIREN ETXEBESTE, ELKARREKIN GIPUZKOA: "EZ GATUZ HONA GEZURRAK ESATERA"

getikoak 0,60tik gorakoa izan behar du, 0,76koa da, Europako altuenetakoa", ziurtatu zuten Asensio.

Zalantzak argitzeko ontzat jo zuten EAJren bozeramaileak Zubietako instalakuntzetara bisita egiteko proposamena, baita Gipuzkoako gainerako instalakuntzetara ere. "Tratamendu planta hauei esker, hiri hondakin solidoen zabortegietatik libratu ahal izan gara. Espainiako lurralde bakarra gara hiri hondakin solidoak zabortegira eramaten ez dituen".

Gardentasun eske

Batzarkide taldeek bigarren hitza hartzeko izan zuten tartean, "ez gatoz hona gezurra esatera", erantzun zion Elkarrekin Gipuzkoak. Deigarritzat jo zuten ukatzea ezingo dela hidrogeno berdearen proiektua gauzatu aurretik, "kreditu

EHBILDU: "GUK NAHI DUGUNA DA GARBI HITZ EGITEA, GAUZA NAHIKO ILUN BATZUK BADAUDE"

nahikorik ez duelako". Bestalde, Gipuzkoak hondakin kudeaketan lurralde burujabea denik ukatu zuten. Nafarroa eramandako libxiatuak gogorazi zizkion Etxebestek Asensiori. Zubietako erraustegiaren bueltan sortutako arazoak ukatzea egotzi zion, baita EHUko ikerlarien txosten tekniko eta zientifikoak ere.

Adierazpen hauen aurrean, PSEko bozeramaileak erabat defendatu zuten foru diputatuaren kudeaketa lana eta Elkarrekin Gipuzkoaren adierazpenak deitoratu zituen. Aurreko txandan adierazitakoa berretsi zuten EAJk; hidrogeno berdearen proiektua bideratzea erraztuko lukeela "2024ko aurrekontuak izanda", baina hauen onarpena eragozten ari zirela adierazi zuten.

EHBildutik oraindik informazioa falta zaiela gogorazi zuten berriz. Asensio hondakinak zabortegietara eramaten ez dituen lurralde bakarra dela Gipuzkoa, horri buruz esandakoei erantzun zuten taldeko bozeramaileak. Hitz hauek "kakotsen artean" jarriko litzukeela zioen Barinagarmenteriak. Izan ere, "herriarroi harrigarria egiten zaigu, kontseilari eta diputatu jaun baten arteko mokoka ibiltze hau", Zubietatik Nafarroa garraiatuak libxiatuak gaiaren harira hain zuten. "Guk nahi duguna da garbi hitz egitea, gauza nahiko ilun batzuk badaude. Dena ez dugu ondo egiten".

Amaitzeko, azken aldiz hitza hartu zuten Asensio, "agiria bidaliko dizuet, zer nahi duzue gehiago egitea?", esanez. Eskatutako azalpenak emateari inoiz ez diola uko egin ziurtatu zuten. "2015. urtetik 70 aldiz baino gehiago agertu naiz" azalpenak ematera zioen. Libxiatuak auziari buruzko adierazpenekin amaitu zuten bere agerraldia. "Gauza ilunak beste leku batean egongo dira. Nafarroan egiten diren tratamenduen ardura ez da nirea, besteena izango da".



Saróa Bikandiren emanaldiak masajeak eta literatura uztartzen ditu. HEGOAK.EUS

'Azalerako ipuinak' Sutegin

Emanaldia 0-3 urte bitarteko umeentzat pentsatuta dago. Saróa Bikandik eskainiko du otsailaren 28an eta plaza kopurua mugatua denez, aurrez eman behar da izena.

Saróa Bikandik **Azalerako ipuinak** izeneko saioa eskainiko du otsailaren 28an asteazkena, arratsaldeko 17:30ean Sutegi udal liburutegian.

"Masajeak eskaintzen duen hitzik gabeko komunikazioa baliatuz ipuinak, poemak, berba jokoak, kantuek... hurbiltzen dizkiegu haur txikienei,

giro lasai eta samur batean", Saróa Bikandi hezitzaileak aditzera eman duenez. "Gurasoak ahozkotasanaren eta azalaren arteko erlazioaz jabetzen dira, haurtxoak literaturara sartzeko bidea mimos zabalduz".

Plaza mugatuak

Sutegi udal liburutegian hainako emanaldia antolatzen duten lehen aldia izango da. 0-3 urte bitarteko umei zuzendua dago baina gurasoek lagunduta etorri behar dute. Plaza mugatuak direnez, izen-ematea Sutegi udal liburutegian egin beharko da alde zuzetik.

Zapia edo esterilla eraman behar da haurraren azpian jartzeko

Sutegitik aditzera eman dutenez, "haurraren azpian jartzeko zapi, kuxin, esterilla edo antzeko zerbait ekartzea komeni da".

HH, LH eta DBH ikasleentzako aurrematrikulazio epea zabalik da

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak otsailaren 7an irekiko du 2024-25 ikasturterako aurrematrikulazio kanpaina, eta otsailaren 23ra arte egongo da zabalik.

Informazio gehiagorako:

Zubietako eskola

- 943 372 931
- 012219aa@hezkuntza.net
- zubietaa@eskolatxikiak.org

Aginagako eskola

- 943 372 044
- aginaga.eskolatxikiak.org

Udarregi ikastola

- 943 36 12 16
- usurbil@ikastola.eus

Labirintoa

Aldea dago!

Bi zamaltzain hauek ez dira berdindinak. Aurki itzazu bien artean dauden aldeak. Bederatzi dira.

Zati engainagarriak

Zortzi zatitxo hauek lau iruditik hartuta daude, eta beste laurak engainagarriak dira, hau da, ontza baduten arren, ez dira guztiz berdinak. Bereiz itzazu.

Itzala Zein da patinatzailearen itzal zuzena?

HELMUGA

Osatu lauki zuriak, dominoak zatiak zentzua izan dezan.

DOMINOAN

Inauteriak

KOTIZLUNGORRIA

Aldameneko hori oso pertsonaia ezaguna da Uztaritzen (Lapurdi). Inauterietan ateratzen da, eta garai bateko bufoieren funtzioa du. Bere izena zein den jakin nahi baduzu, bete lauki zuriak marrazkiei begiratu. Azkenik, ertz lodiz nabarmenduta dauden laukietako hizkiak dagokien tokira eraman (erreparatu koloreari).

Plazan Bazan 12/13 orrialdeetako soluzioak.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki baten bila gabilta. 627184674

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Garajeko marra bat eskaintzen da errentan hartzeko, herriaren erdialdean. 636601644.

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 652 765 583.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA!KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

DBH3ko ikasle bati matematika, fisika eta kimikako errefortzu-klaseak eman-go dizkion unibertsitateko ikasle bat behar dugu. 615 75 84 76.

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 649 844 727.

Aginaga sagardotegian txotx garaian larunbat eguerditan zerbitzaria behar da. 943 366 710.

Sukaldari laguntzailea behar dugu lanaldi osorako Kalezarko Matiarene auzuneko kafetegirako. 670 654 272.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Umeak zaindu, eskolara eraman edo etxekolanak egiteko prest. Goizez edo arratsaldez aritzeko 616273785.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Pertsona helduarentzako laguntzailea behar dugu Antiguon astean bost orduz, euskaraz dakiena. Eusko Jaur-laritzaren titulua ezinbestekoa. 609 582 242

Pertsona helduak zaintzeko, garbiketa lanetarako... lan bila nabil. 672 730 902

Garbitasun lanak egingo nituzke. 9:00-16:00 arteko disponibilitatea. 632157186

Neska euskalduna umeak ikastolara eramateko edo zaintzeko prest loge-ke. 635 007 449 (Leire).

Astean zehar zein asteburuetan haurrak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz. Esperientzia daukat. 676584506.

Haurrak zaintzeko lan bila nabil. Esperientzia daukat. 695 18 41 79

Soziosanitario titulua dut. Jende nagusia zaintzeko prest, orduka, edo gau eta egun. 632 360 758.

BESTELAKOAK

Sudadera beltz bat galdu zaigu. M tailakoa, olatu baten irudi txuria du aurrean. 671673920.

Belarritako bat aurkitu genuen kalean, abenduaren 8aren inguruan. Galdu baduzu deitu honako telefono zenbakira: 607 168 352.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

GUARDIAKO FARMAZIAK

Osteguna, 08	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Ostirala, 09	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Larunbata, 10	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Igandea, 11	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Astelehena, 12	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Asteartea, 13	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Asteazkena, 14	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Osteguna, 15	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Ostirala, 16	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Larunbata, 17	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Igandea, 18	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SABORIDO RODRIGUEZ, MIREN: Mañe i Flaquer plaza, 6 Hernani 943 57 64 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta ipini nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitez gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

Eskubaloia

Otsailak 10, larunbata:

- 17:00 Senior mutilak: Saizar Usurbil KE-Saieko
- Errifa: Urtarrileko zozketako zenbaki saritua, 1.674.

ZORION AGURRAK



Zorionak lara!
Otsailaren 15ean 5 urte jada, ze handia! Muxu potolo bat ebekoen partez! Infinitu maite zaitugu!

HILDAKOAK



Jon Berlosa Centeno
Urtarrilaren 27an hil zen, 44 urterekin.



Jexux Labaka Etxeberria
Otsailaren 3an hil zen, 84 urterekin.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 09

USURBIL Inauteri Festa: kalejira, "Urderen etorrera"

Mozorrota eta etor zaitez gurekin Usurbilgo inauteriaz gozatzerako! Antolatzaileak: NOAUA!, Orbeldi, Zumarte eta Usurbilgo Joaldunak. 19:00 Kiroldegitik abiatuta.

LARUNBATA 10

USURBIL Inauteri Festa: fauna

11:30 Mozorro dantza-kalejira Kiroldegitik abiatuta. 12:30-14:00 Joaldunak kalean zehar. 18:00 Burrunbazale txarangarekin kalejira. 22:30 Itzal erromeri taldearen emanaldia frontoian.

AGINAGA Oriaren 30. Traineru Jaitsiera

Bi modalitate: 4.000 metrokoa Sarikolan abiatu eta Orion amaituko da. 6.000 metrokoa, Mapilen hasi eta Orion amaituko da.

15:40 Aginagako Mapiletik abiatuta.

ASTEAZKENA 14

USURBIL Korrika Kulturala: Iñaki Iurrebasoren hitzaldia

Hitzaldia: "Euskararen egoera gaur. Zer diote datuek?". Antolatzaileak: Usurbilgo Udala, UEMA eta Korrika Batzordea. 18:30 Potxoenean.



Orbeldi dantza taldeak ikuskizun berri bat sortu du aurtengo Inauterietarako.

Urde eta bere lagunekin kalejiran

Inauterietako egun seinatua larunbatekoa izan ohi da baina mozorro festa bezperan hasiko da, Orbeldi dantza taldeak antolatu duen kalejirarekin.

Ostiral honetan, Oiardo kiroldegitik abiatuko dute kalejira arratsaldeko 19:00etan. Aurtengo eskaintza ordea, ezberdina izango da.

Orain arte, Orbeldikoek euskal dantza bat hautatu ohi zuten, Inauteri girokoa, eta dantza hori erakusten zuten kalez kale. Aurtengoa, ordea, ohiko ideia aldatu eta beste zerbait egitea erabaki dute: Usurbilen sortutako herri inauteri propioa. Urde pertsonaiaren inguruan antolatu dute kalejira berria.

Arraun proba Oria ibaian

Oriaren Jaitsierak Inauteri Jaiarekin bat egingo du aurtengoan. Arraun denboraldi hasierako probarik ezagunena da eta honakoan ere arraun talde asko espero dira Mapileko irteera-gunean. Proba bi modalitateetan jokatuko da. 4.000 metrokoa Sarikolan abiatu eta Orion amaituko da. 6.000 metrokoa, Mapilen hasi eta Orion amaituko da. 15:40ean hasiko da arraun proba.

Korrika Kulturalako lehen hitzordua

23. Korrika girotzen hasteko lehen hitzordua, otsailaren 14rako iragarri dute 18:30ean Potxoenean. Iñaki Iurrebasok "Euskararen egoera gaur. Zer diote datuek?" hitzaldia eskainiko du bertan. Usurbilgo Udala, UEMA eta Korrika Batzordeak antolatu dute Iurrebasoren solasaldia.

II. Xake Topaketa Sutegi udal liburutegian

Otsailak 16, ostirala

- Ordua: 17:00.
- Tokia: Sutegi udal liburutegia.
- Nori zuzendua: LH 1, 2 eta 3. mailakoei.
- Oharra: taldea oso handia baldin bada, martxoaren lehen beste saio bat egingo dugu. Bi saioak adinaren arabera antolatu dira.
- Izen-ematea: Sutegi udal liburutegian.

 **Kima**
MASAJE LEKUA

 · KIROL MASAJEA
· MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

Zuen publizitatea hemen

943 360 321

publizitatea@noaua.eus

URDAIRA

Sagardotegia

943 37 26 91

Aginaga

Astelehenak itxita

  @urdairasagardotegia | www.urdairasagardotegia.com



OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarrilaren 19tik maiatzaren 5era
TXOTX GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa larunbatetan
Igande gaua eta astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**

Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867

www.iruinsagardotegia.com



ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehen eta astearte izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81



SAIZAR

Sagardotegia

www.sidrassaizar.com



943 37 39 95

SAGARDOTEGIA

aginaga

URTE OSOAN
ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA
astelehenetan itxita

Tfno-fax: 943 36 67 10
Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagasagardotegia.com
www.aginagasagardotegia.com



Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!

ORDUTEGIA:

Asteazken eta ostegunak: 20:00-01:00

Ostirala: 13:30-18:00 / 20:00-01:00

Larunbata: 13:00-18:00 / 20:30-01:00

Igandea: 13:30-18:00

%100 bertako sagarra

Tel: 943 365 031

Santuenea





Udarregi ikastolak zera eskaintzen dizue:

- **0 urtetik 16 urte bitarteko irakaskuntza arautua.**
- Hezkuntza Integrala: Konpetentzietan Oinarritutako Hezkuntza.
- **Hezkuntza eredu propioa:** Konfiantzaren Pedagogia egitasmoa garatzen dugu.
- **Ikastola Berritzailea:** eraldaketa didaktiko, metodologiko, eta teknologiko etengabea sustatzen dugu.
- **Ikastola Euskalduna:** euskaraz irakatsiz eta ikasiz, euskaraz biziz, euskaldun konprometituak hezten dihardugu.
- **Irakaskuntza Eleanitza:** ingelesa 4 urtetik aurrera eta frantsesa, hautazko gaia, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- **Herritarra:** Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgildutako ikastola.
- **Ikastola Inklusiboa:** guztion ikastola bultzatzen dugu, aniztasuna, garapen- eritmo eta behar espezifikokoak aintzat hartuz.
- **Baso eskola:** basoa gela bihurtzen da. Espazioa eta bertan aurkitzen diren naturako elementu guztiak ikasteko baliabide dira.
- **KiVa ikastola:** Eskola Jazarpenaren (bullying) aurkako programa finlandiarra indarrean 2017tik aurrera beste 56 ikastolekin batera.
- **Autobusa** auzo eta herrietara: Santuenea, Aginaga, Zubieta eta Lasarte.
- **Jangela:** bertan sukaldatutako herriko produktuak.
- **Zaintza zerbitzua:** 08:00etatik 09:00etara eta iraila eta ekainean 14:30 16:30era.
- **Zirimara Proiektua** (eskola kirola eta aisialdia).
- **Beka sistema propioa:** kuoten %100 bonifikatua.

56 urteko esperientzia Usurbilen.

Matrikulatzeko epea (3 urtetik-16 urtera)
Otsailaren 7tik 23ra (biak barne)

HAUR HEZKUNTZA: 3 - 6
LEHEN HEZKUNTZA: 6 - 12
DBH: 12 - 16



943 361 216

Udarregi Ikastola

Gernika ibilbidea. USURBIL

www.udarregi.eus